


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2004KO APIRILA

Euskal AEko industri jarduera %2,6 hazi zen 2004ko apirilean

Urteko lehenengo lau hilabeteko bilakaerak %3,5eko hazkundera izan du, 2003ko aldi beraren aldean.

2004ko apirilean, %2,6 hazi zen Euskal AEko industri jarduera, balio absolututan, 2003ko hil beraren aldean, EUSTATEk landutako datuen arabera. Balio homogeneotan, urte arteko aldakuntza %2,7ra iritsi zen. 2004ko lehenengo lau hileko hazkunde metatua %3,5ean kokatu zen, balio absolututan, aurreko urteko aldi beraren aldean; eta %2,8ko hazkundera izan zen, urte arteko alderagarritasuneko balio egokituetan.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1998-2004



(*) 2004ko apirileko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: EUSTAT

2003ko apirilean, urte arteko aldakuntzarik positiboak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zitzaizkien: *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%19,0), *material elektrikoa* (%13,1) *janari-industria* (%10,3), *petrolioa fintzea* (%9,0) eta *ehungintza eta jantzigintza* (%8,4) arloei, besteak beste. Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan zituzten: *ez-metalezko industria* (%-11,3), *larruaren eta oinetakoen industria* (%-6,1), *bestelako manufakturak* (%-5,9), *papera, edizioa eta arte grafikoak* (%-3,6) eta *metalgintza eta metalezko gaiak* (%-2,3) arloek, batik bat.

Urteko lehenengo lau hilabeteetan, aurreko urteko aldi beraren aldean, hazkunde-tasa handienak sektore hauei egokitu zitzaizkien: *petrolioa fintzea* (%35,8), *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%25,7), *material elektrikoa* (%6,1), *ehungintza eta jantzigintza*

(%5,2) eta *kautxua eta plastikoa* (%4,3) arloei, besteak beste. Tasa metaturik negatiboenak, berriz, honako hauek izan zituzten: *larruaren eta oinetakoen* industria (%-14,9), *ez-metalezko industria* (%-7,1), *bestelako manufakturak* (%-6,4) eta *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-5,6) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapen berrian, 2004ko apirilean, nabarmen igo zen *energiaren* urte arteko tasa (%16,1) eta apalago *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrena* (%5,9), *ekipo-ondasunena* (%1,5) eta *bitarteko ondasunena* (0,6). *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* bakarrik jaitsi ziren, %2,1eko tasara.

Lehenengo hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, *energiak* %28,3ko hazkundera metatu zuen, *bitarteko ondasunek* %2,4koa eta *ekipo-ondasunek* %0,1ekoa. *Kontsumo-ondasunak*, aldiz, %1,8 jaitsi ziren eta honela banatu ziren: *kontsumo-ondasun iraunkorrak* %-4,2ra iritsi ziren eta *ez-iraunkorrak* %-0,6ra.

Lurralde historikoka, Indize Orokorren urte arteko bilakaerek erritmo desberdinak izan zituzten; balio absolututan, %10,3 hazi zen Araban, %2,5 Gipuzkoan eta %1,0 jaitsi zen Bizkaian. Urteko lehenengo lau hilabeteetan hazkunde metatuaren tasa handienak Arabari (%5,7) egokitu zitzaizkion, ondoren Gipuzkoari (%3,8) eta azkenik Bizkaia (%2,1).

**Taula: 2004ko APIRILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren
Indizearen aldakuntza-tasak (%)**

Kontzeptua	2004ko apirileko aldakuntza-tasak		2003ko apirileko aldakuntza-tasak	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	2,6	2,7	-3,6	2,0
Araba	10,3	10,3	-4,9	3,1
Bizkaia	-1,0	-1,0	-3,5	1,4
Gipuzkoa	2,5	2,5	-3,0	2,1

(*) egutegiaren eragina zuzenduta

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tel.: +34-945 017 514. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es